

ERHIEN AGURRA

Errepika :

Itzul denak, eskuz-esku lotuak,
erronda bat orok (eg)in dezagun.
Bertzaldera goazen neska-mutilak;
orai geldi gaiten! Entzun, entzun:

Ni erregea naiz, erhi* pototsa.

Errepika.

Ni bigarrena naiz, erakuslea.

Errepika.

Ni haundiena naiz, erhi na(g)usia.


Errepika.

Ni laugarrena naiz, erhi nagia.

Errepika.

Ni ttikiena naiz, erhi pitiña.

* erhi : hatz,
behatz



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua ikasi eta zuzen kantatu. Taupadak (pulsazioak) senditu eta arabera ibili.	◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.	◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea iharduerai egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi.
MUNDUAN IHARDUN. Taupaden (pulsazioen) arabera ibili.	◆ Oinarritzko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...). ◆ Egintzen burutza ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Soinu egite et entzute ihardueren arteko harremanari ohartu.	◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MUNDUARI OHARTU. Segidak landu.	◆ Gauzen ezaugarri zenbait ezagutu, horien konparatzeko, bereizteko, sailkatzeko eta ordenatzeko. ◆ Zenbaki prozedura bat (edo beste prozedura bat) obratu.	◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Eskuko erhi enizenak ikasi.	◆ Hitza hartu eta molde ulargarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)

Haurrak errondan dira.

ERREPIKA :

<i>Itzul denak eskuz-esku lotuak</i>	⇒	Eskuz-esku ibiltzen dira errondan.
<i>erronda bat orok (eg)in dezagun.</i>		
<i>Bertzaldera goazen neska-mutilak</i>	⇒	Zentzuz aldatzen dira.
<i>orain geldi gaiten ! Entzun, entzun :</i>		

LEHEN KOPLA :

Ni erregea naiz, erhi pototsa ⇒ Gelditzen dira, eskuak utzi eta, erhi pototsa erakusten dute.

ERREPIKA : lehengo aldian bezala.

BIGARREN KOPLA :

<i>Ni erregea naiz, erhi pototsa</i>	⇒	Gelditzen dira. Eskuak utzi eta, erhi pototsa
<i>Ni bigarrena naiz, erakuslea.</i>		erakusten dute eta ondotik, erakuslea.

ERREPIKA : lehengo aldian bezala.

HIRUGARREN KOPLA :

<i>Ni erregea naiz, erhi pototsa.</i>		Gelditzen dira. Eskuak utzi eta,
<i>Ni bigarrena naiz, erakuslea.</i>	⇒	erhi pototsa, gero erakuslea
<i>Ni haundiena naiz, erhi na(g)usia.</i>		eta ondotik erhi nagusia erakusten dute.

eta abar...

☺ Orri batean, pausa ezazu zure eskua, erhiak ongi idekirik.
Arkatx batekin, eskuaren ingurua marraz ezazu.

Osatzeko ikus Haur Jolasen abestiak KDan (Hik hasi. Xangorin) :

→ Arraultzaren behatzen jokoa.

→ Lehenengotxo hori.

→ Asmazak/asmazan.